

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Irungo Aduana Guneko Elkarte Sustatzailea, SA

**Sociedad Promotora de la Zona Aduanera
de Irun, SA**

2017





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURTZAPENAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	8
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK.....	9
III.1 Kontabilitatea.....	9
III.2 Kontratazioa.....	9
III.3 Bestelako alderdiak.....	10
IV. URTEKO KONTUAK.....	11
ERANSKINAK.....	15
A.1 Erakunde fiskalizatuaren izaera eta araudi aplikagarria.....	15
A.2 Ibilgetu materiala eta higiezinako inbertsioak.....	15
A.3 Kapital soziala eta akzio propioak egoera berezietan.....	16
A.4 Zorpetzea.....	17
A.5 Ustiapen sarrerak.....	17
A.6 Langileen gastuak.....	18
A.7 Hornikuntzak eta ustiapeneko beste gastu batzuk.....	19
A.8 Kontratazioaren analisia.....	19
ALEGAZIOAK.....	21
ABREVIATURAS.....	25
I. INTRODUCCIÓN.....	27
II. OPINIÓN.....	28
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	28
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	28



III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	29
III.1 Contabilidad.....	29
III.2 Contratación	29
III.3 Otros aspectos.....	30
IV. CUENTAS ANUALES.....	31
ANEXOS	35
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y normativa aplicable	35
A.2 Inmovilizado material e inversiones inmobiliarias.....	35
A.3 Capital social y acciones propias en situaciones especiales	36
A.4 Endeudamiento	37
A.5 Ingresos de explotación	37
A.6 Gastos de personal	38
A.7 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación	39
A.8 Análisis de contratación	39
ALEGACIONES	41



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURTZAPENAK

BEZ Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.

EAOL 3/2017 3/2017 Legea, ekainaren 27koa, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

EFPL 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

EJ Eusko Jaurlaritza

EPOELTB5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 2011ko urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

GFA Gipuzkoako Foru Aldundia

IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia

KPI Kontsumorako Prezioen Indizea

SPKLTB 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duena.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Irungo Aduana Guneko Elkarte Sustatzailea SAREN (aurrerantzean ZAISA) 2017ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

2017ko ekitaldiko Urteko Kontuak 2018ko ekainaren 7ko Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zituen.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Ezargarria den araudia bete dela egiaztatzea langileria, obren kontratazio, zerbitzu eta hornidura gaitan. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea eragotzi gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea. Gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, egoki iriztitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren efikazia eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan zehar sortu diren akatsak Txosten honetako III. idazpuruan daude jasotak.

ZAISA mugagabeki eratu zen 1983ko uztailaren 27an, ondorengo Administrazio publiko hauek % 92,45eko partaidetza zutela: Irungo Udalak (% 30,91), Eusko Jaurlaritzak (% 30,77) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (% 30,77). 2012 eta 2016 bitartean, sozietateak bazkide pribatuen akzioak erosi zituen (% 7,55 ziren), eta autozorrotzat gordeta zituen 2017ko abenduaren 31n. Akziodunen Batzar Nagusiak 2018ko ekainaren 7an onartu zuen sozietate-kapitala murriztea, akzio propioak amortizatuz. Horrenbestez, sozietatea osorik publiko bihurtu da.

Sozietatearen jardura nagusia, eratu zenetik, alokatzeko edo saltzeko pabiloi eta lokaletarako urbanizatze eta eraikitze lanak egitea izan da, Irungo udalerriko 400.000 metro koadroko lur eremu batean, helburutzat izanik garraio eta logistikako enpresak hor kokatzea eta ibilgailu astunetarako aparkalekua eskaintzea. Urte hauetan, ZAISAk bere pabiloi gehienak salduz joan da. Egun, 140tik gora enpresa daude instalatuta. 2017an, sozietatearen jardura, funtsean, bulegoak, pabiloiak eta kamioi aparkalekuak kudeatzea izan da.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILEAK (ikus A.6)

- 1.- Sozietateak 2016ko ekitaldian lanpostu bat mugagabeki hornitzeko jarraitu zuen prozesuan, ez dago dokumentuz jasota zer irizpidek arrazoitu zuten Lanbidek emandako hautagaien artean egindako azken hautaketa. Beraz, ezinezkoa zaigu egiaztatzea ea berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete ziren.

KONTRATAZIOA (ikus A.8)

- 2.- Bost urterako eta guztira 71.992 eurotan luzatu zen, 2016ko otsailean, informatikako zerbitzu lagungarriak kanpoan kontratatzeko kontratua, 2011n hirugarren bati zuzenean esleitua. Eta kontratu horren hedapena izenpetu zen, elementu berriak sartuz, 8 urterako eta guztira 82.108 eurotan. Sozietateak, kontratuaren bolumen osoari begiratuta, ez ditu bete publikotasun eta lehia printzipioak, kontratazio arauetan ezarriak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko [SPKLTB] 191. artikulua).

Epaitegi honen iritzira, 1 eta 2 paragrafoetan zehaztu diren ez-betetzeak alde batera, ZAISAk zuzentasunez bete du 2017ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, ZAISAren 2017ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, hor jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan, alde batetik, jarduera ekonomiko eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzeari modu nabarmenean eragiten ez dioten hutsak adierazten dira; eta bestetik, kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozeduraren alderdiak.

III.1 KONTABILITATEA

ZAISAk Zaisa I industrialdeko jabeen erkidegoko administratzailetzat jarduten du, erkidego horretan gutxi gorabehera % 55eko partaidetza izanik. Zerbitzu eta hornidurak (2017ko ekitaldian, 530.671 euroren gastua) eta gainerako jabeen gastu horiek ordainaraztearen diru sarrerak (236.934 euro) sozietatearen galera eta irabazien kontuan erregistratu dira. Jabeen erkidegoak, bere IFZ propioa eskuratuta, zerbitzu eta hornidura horiek kontratatu behar lituzke, eta bere kontabilitatean erregistratu behar lituzke bere jarduerari dagozkion eragiketa guztiak (ikus A.7).

III.2 KONTRATAZIOA

Aztertutako espedienteak (ikus A.8)

- Prozedura irekiz eta gehienez 626.760 euroan esleitutako kontratuan (1. espediente), alderdi hauek ditugu aipatzekoak:
 - Kontratuaren baldintzen agirian galdatzen da esleipendun berriak subroga ditzala aurreko kontratistaren langileak, baina betekizun hori sektore hitzarmenetatik baizik ezin da eratorri.
 - Baldintzen agirian bada prezioak berrikusteko klausula bat, Euskal Autonomia Erkidegoko KPIari lotua. Araudiak, ordea, debekatu egiten du prezioen berrikustek prezio indize orokorreari edo horiek dauzkaten formulei lotzea.
 - Sozietateak esleipendunari ez dio eskatu dokumentuzko frogarik, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela baieztatzen duenik.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Informatikako zerbitzu lagungarriak kanpoan kontratatzeko kontratuan eta haren hedapenean luzapen tazituak daude jasota, hasierako epeen iraupen berekoa bakoitza, eta ondoz ondoko aldietarako, nahiz eta errentamenduaren xede diren hornidurak esleipendunak ordezkatu behar dituen horiek bukatzean. Luzapenak berariaz onartu behar ditu kontratazio organoak, haien iraupena prestazioen ezaugarriak kontuan hartuta zehaztu beharko litzateke, eta luzapenen kopuruak mugatua izan behar du (2. espedientea).

III.3 BESTELAKO ALDERDIAK

- Komeni litzateke sozietatearen webgunean alokatzeko lokal eta bulegoei dagokienez dagoen eskaintza agertzea.

**IV. URTEKO KONTUAK**

EGOERAREN BALANTZEA 2017 eta 2016ko abenduaren 31n

Euroak milakotan

	ERANSKINA	17.12. 31	(*)16.12.31
AKTIBO EZ ARRUNTA		20.120	21.299
Ibilgetu materiala	A.2	603	652
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.2	19.401	20.307
Epe luzeko finantza-inbertsioak.....		2	212
Geroratutako zergagatiko aktiboak.....		114	128
AKTIBO ARRUNTA		9.989	8.582
Izakinak		40	40
Merkataritzako zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk		152	415
Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan inbertsioak.....		-	50
Epe laburreko finantza-inbertsioak.....		5.520	5.516
Aldizkakotzeak		13	9
Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk.....		4.264	2.552
AKTIBOA		30.109	29.881
ONDARE GARBIA		28.788	28.200
Funts propioak		28.784	28.193
Harpidetutako kapitala.....	A.3	17.625	17.625
Erreserbak.....		12.757	11.753
Ondarean akzio propioak.....	A.3	(2.189)	(2.189)
Galera-irabaziak.....		591	1.004
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak.....		4	7
PASIBO EZ-ARRUNTA		371	738
Zorrak kreditu erakundeekin epe luzera	A.4	370	735
Atzeratutako zergengatiko pasiboak.....		1	3
PASIBO ARRUNTA		950	943
Zorrak, kreditu erakundeekin epe lab.	A.4	364	359
Beste finantza pasibo batzuk.....		96	99
Merkataritzako hartz. eta kobratzeko beste kontu batzuk		490	485
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA		30.109	29.881

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2017 eta 2016ko ekitaldietako GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA Euroak milakotan

	ERANSKINA	2017	(*) 2016
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	A.5	2.932	2.923
Hornidurak	A.7	(25)	(21)
Bestelako ustiapen-sarrerak.....	A.5	343	435
Langileria-gastuak.....	A.6	(260)	(252)
Bestelako ustiapen-gastuak.....	A.7	(1.148)	(1.230)
Ibilgetua amortizatzea.....	A.2	(1.030)	(1.056)
Ibilgetuko diru-laguntzak eta beste egozteak		5	5
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza		-	437
Aparteko emaitza		11	-
USTIAPENAREN EMAITZA		828	1.241
EMAITZA FINANTZARIOA		(8)	(25)
EMAITZA ZERGA AURRETIK		820	1.216
Mozkinen gaineko zerga.....		(229)	(212)
EKITALDIAREN EMAITZA		591	1.004

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.

AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUEN EGOERA, 2017 ETA 2016KO EKITALDIEI DAGOKIENA Euroak milakotan

	2017	2016
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	591	1.004
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira	(3)	(4)
Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak	(5)	(5)
Zerga ondorioa	2	1
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	588	1.000

ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA, 2017 eta 2016ko abenduaren 31n Euroak milakotan


	KAPITALA ETA ERRESERBAK	AUTOKARTERA AKZIOAK	EKIT. EMAITZA	DIRU-LAG.DOH. ETA LEG. GUZTIRA	
Saldoa 2015eko urtarrilaren 1ean	29.003	(1.927)	375	11	27.462
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	1.004	(4)	1.000
Akzio propioekin egindako eragiketak	-	(262)	-	-	(262)
Ondarearen bestelako bariozioak	375	-	(375)	-	-
Saldoa 2016ko abenduaren 31n	29.378	(2.189)	1.004	7	28.200
Aitortutako diru-sarrerak eta gastuak guztira	-	-	591	(3)	588
Ondarearen bestelako bariozioak	1.004	-	(1.004)	-	-
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	30.382	(2.189)	591	4	28.788



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2017 eta 2016ko ekitaldietako eskudiruzko fluxuen egoerak	Euroak milakotan	
	2017	2016
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik	820	1.216
Emaitzari doikuntzak	1.066	697
Ibilgetua amortizatzea	1.030	1.056
Diru-laguntzak egozteak	(5)	(5)
Ibilgetuaren baja eta besterenganatzeengatik emaitzak	-	(437)
Zuzkiduren aldaketa	33	58
Sarrera finantzarioak	(5)	(17)
Gastu finantzarioak	13	27
Finantza baliabideetan arazoizko balioaren bariazioa	-	15
Kapital arruntean aldaketak	217	(57)
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	(208)	(130)
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	1.895	1.726
Inbertsioen ordainketak	(75)	(2.161)
Desinbertsioengatik kobrantzak	255	950
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	180	(1.211)
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	-	(262)
Finantza pasiboaren tresnengatik kobrantzak eta ordainketak	(363)	(339)
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(363)	(601)
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	1.712	(86)
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	2.552	2.638
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	4.264	2.552





ERANSKINAK

A.1 ERAKUNDE FISKALIZATUAREN IZAERA ETA ARAUDI APLIKAGARRIA

ZAISA sozietate anonimo bat da, kapital osorik publikokoa, zuzenbide pribatuak arautua. Aplikagarri zaio 1/2010 Legegintzako Errege Dekretua, 2010eko uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartu duena.

Ondasun eta zerbitzuak kontratatzearen eremuan, botere esleitzaitzat jotzen da, SPKLTBko 3.3 artikuluari jarraituz, eta haren kontratuak pribatuak dira lege horretako 20. artikuluekin bat. SPKLTBko 190. eta 191. artikuluei jarraikiz, erregulazio harmonizatuaren mende dauden kontratuak, prestatzeari eta esleitzeari dagokienez, SPKLTBk arautuko ditu; eta gainerako kontratuetan esleipenean aplikatu beharko dira onartu diren eta haren kontratatzaile proflean argitaratu diren kontratazioko barne jarraibideak. Kasu guztietan errespetatu beharko dira publikotasunaren, lehiaren, gardentasunaren, isilpekotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Langileak kontratatzeari dagokionez, Konstituzioan ezarritako eta araudi aplikagarrian (EFPL eta EPOELTB) garatutako berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publikotasun printzipioen mende dago.

A.2 IBILGETU MATERIALA ETA HIGIEZINEKO INBERTSIOAK

2017ko ekitaldian ibilgetu materialeko eta higiezinako inbertsioetako kontuen mugimendua honakoa izan da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan				
	KOSTUA 17.1.1	ALTAK	AMORTIZ. 17.1.1	AMORTIZ. 2017	KOSTU GARBIA 17.12.31
IBILGETU MATERIALA	1.125	6	(473)	(55)	603
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	702	-	(146)	(20)	536
Instalakuntza teknikoak	298	-	(216)	(30)	52
Altzariak eta bestelako instalazioak.....	76	-	(76)	-	-
Beste ibilgetu bat.....	49	6	(35)	(5)	15
IBILGETUKO INBERTSIOAK	31.549	69	(11.242)	(975)	19.401
Lur-sailak eta eraikuntzak.....	29.032	-	(9.529)	(771)	18.732
Instalakuntza teknikoak	1.513	34	(1.020)	(138)	389
Altzariak eta bestelako instalazioak.....	762	35	(451)	(66)	280
Bestelako ibilgetu materiala	242	-	(242)	-	-
GUZTIRA	32.674	75	(11.715)	(1.030)	20.004

2017ko abenduaren 31n “Higiezinako inbertsioak” idazpuruan barne hartutako errentamenduetarako ondasunen saldo gordinaren xehakapena honakoa da:

	Euroak milakotan		
	LURSAILAK	ERAIKIAK	GUZTIRA
Bulego eta lokaletarako eraikinak.....	1.065	9.941	11.006
Ibilgailuentzako lur azpiko aparkalekua (400 plaza)	666	4.714	5.380
Industria pabiloia.....	651	2.615	3.266
Z1 kamioentzako aparkalekua (100 plaza).....	909	183	1.092
Z3 kamioentzako aparkalekua (275 plaza).....	3.965	3.057	7.022
Zerbitzugarerako orubea	958	-	958
Hotelerako orubea	308	-	308
GUZTIRA	8.522	20.510	29.032

2017ko ekitaldian errentamenduek eragindako sarrerak 2,9 milioi eurorenak izan dira (ikus A.5).

A.3 KAPITAL SOZIALA ETA AKZIO PROPIOAK EGOERA BEREZETAN

2017ko abenduaren 31n kapital sozialaren osaera honakoa da:

	Euroak milakotan	
	% PARTAID.	ZENBATEKOA
Irungo Udala	% 30,91	5.447
EJ	% 30,77	5.423
GFA	% 30,77	5.423
Akzio propioak egoera berezietan	% 7,55	1.332
GUZTIRA	% 100,00	17.625

Egoera berezietako akzio propioak beren kontabilitate balio garbian erosi ziren, Akziodunen Batzar Nagusiak baimena eman eta gero. Xehetasun hauek dituzte:

	URTEA	Euroak milakotan		
		PARTAID. %	BALIO NOMINALA	EROSKETA PREZIO
Aldeasa, SA	2012	% 0,11	20	26
Kutxabank	2015	% 5,07	894	1.472
Irungo Aduanetako Agente eta Komisiodunen Elkargo Ofiziala	2015	% 1,48	261	429
Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofiziala .	2016	% 0,31	54	91
Guitrans: Salgaien Garraioko Enpresa Elkarte	2016	% 0,22	39	65
Laboral Kutxa.....	2016	% 0,22	39	64
Banco Sabadell	2016	% 0,12	21	36
Bankoa	2016	% 0,02	4	6
GUZTIRA		% 7,55	1.332	2.189

Akziodunen Batzar Nagusiak 2018ko ekainaren 7an onartu zuen kapitala murriztea, 1,3 milioi euroan, autozorhoa eratzen duten akzioak amortizatuz. Ondorioz, % 33,44ko partaidetza du Irungo Udalak, eta % 33,28nako Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

A.4 ZORPETZEA

Hona hemen Sozietateak formalizatutako maileguaren xehakapena, 2017ko abenduaren 31n indarrean zegoena:

Euroak milakotan							
ENTITATEA	EMANDAKO ZENBATEKOA	% INTER. MOTA	EMAKIDA DATA	EPE- MUGA	ZORRA 17.1.1	AMORTIZ. 2017	ZORRA 17.12.31
Kutxabank	4.500	euribor+0,85	2004	2019	1.094	360	734

A.5 USTIAPEN SARRERAK

Galera eta Irabazien Kontuan sozietatearen jardueraren ustiapenari lotutako sarreretako epigrafeen xehetasuna honako hau da:

Euroak milakotan		
KONTZEPTUA	2017	2016
Negozio kopuruaren zenbateko garbia (errentamenduak)	2.932	2.923
Zerbitzugunearen ustiapeneko lursaila	1.314	1.330
Z1 eta Z3 kamioientzako aparkalekuak	823	804
Merkataritzako bulego eta lokalak (38 hirugarren).....	462	461
Industria pabiloia	221	221
Lur azpiko aparkalekuak (ibilgailu arinak).....	67	62
Beste txiki batzuk.....	45	45
Ustiapeneko bestelako sarrerak	343	435
Bulegoen gastu komunak ordainaraztea	(*)153	155
Pabiloien gastu komunak ordainaraztea.....	(*)177	164
Beste txiki batzuk.....	13	116
GUZTIRA	3.275	3.358

(*) Beste jabe batzuek ordaindutako komunitate gastuei dagozkie 236.934 euro (ikus A.7); eta errentariei ordainarazitako komunitate gastuei, 92.660 euro.

Errentamenduengatik diru sarreretatik, aipatzekoak ditugu:

- Zerbitzugune bat eta jatetxe eremu bat ustiatzeko lursaila: prozedura ireki bat izapidetu eta gero, ZAISAk 2005. urtean kontratua egin zuen, 15 urterako, beste 5 urterako luzagarria. Kontratua bukatzean, lursaila, bai eta errentariak gauzatutako instalazioak ere, ZAISari itzuliko zaizkio. Kontratuan ezarritako kontraprestazio ekonomikoak bi osagai ditu: 602.390 euroren kanon finkoa, 2017an; eta beste kanon aldakor bat, errentariak saldutako erregai litroen arabera. Biak urtero eguneratzekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko KPIarekin



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Industria pabiloia: ZAISAk biltegitarako industria pabiloi bakarra du jabetzan, 2017ko abenduaren 31n. Errentan emana dago, 2014ko ekainaren 1ean izenpetutako kontratuz, hiru urterako; eta epe hori luzatu egin da, egindako kontratuan ezarri zenez, beste bi urterako.

A.6 LANGILEEN GASTUAK

Hona hemen 2017 eta 2016ko ekitaldietako langileen eta 2017ko abenduaren 31ko enplegatuen plantillaren gastuaren xehakapena, aurreko ekitaldiarekiko bariaziorik izan ez duena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Soldatak eta ordainsariak	210	200
Gizarte Segurantzza	50	52
LANGILERIA GASTUA GUZTIRA	260	252

KONTZEPTUA	Kopurua
	31.12.17
Lan kontratu mugagabekoak	3
Lan kontratu mugagabekoak: txanda-kontratu.....	1
Aldi-baterako lan kontratuko langileak Erretiro partziala	1
ENPLEGATU KOPURUA GUZTIRA	5

2017ko urtarriletik aurrera, ZAISAk bere langileei % 1,6ko igoera pagatu zien ordainsarrietan, aurreko ekitaldiko ordainsarien aldean. Horrela, gainditu egin bete Estatuko Aurrekontu Orokorren 3/2017 Legeko 18. artikuluan ezarritako % 1eko muga; eta muga hori aplikagarri zaio Administrazio publikoek gehiengo partaidetza duten merkataritza sozietate bat denez. Gaindikin hau 2019ko abuztuan zuzendu da.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, 2016ko ekitaldian txanda kontratuaren modalitatez lan kontratu mugagabearekin langile bat kontratatze prozesua egin zen. Erretiro partzialeko egoerara igaro zen enplegatu baten lanpostua bete zuen. Lanbideri enplegu eskaintza egiteko eskaeraren ondoren, eta zenbait hautagaitza jasota, azken hautapenaren emaitza ekarri zuten irizpideen aplikazioa ez zen dokumentuz erregistratu prozesuaren faseetan.



A.7 HORNIKUNTZAK ETA USTIAPENeko BESTELAKO GASTUAK

Galeren eta Irabazien Kontuko epigrafeen xehetasuna honako hau da::

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	2017	2016
Hornikuntzak	25	21
Ustiapeneko bestelako gastuak	1.148	1.230
Kamioi aparkalekuetako sarbideen kontrola.....	192	195
Zaisa I industrialdeko pabiloien segurtasun zerbitzua	129	128
Bulego eraikinetako segurtasun zerbitzua	97	96
Bulego eraikineko harrera lekua.....	54	54
Aseguru primak	51	50
Argindarra hornitzea.....	162	148
Garbiketa zerbitzua	79	81
Zergak	89	102
Beste txiki batzuk.....	295	376
GUZTIRA	1.173	1.251

ZAISAK «Ustiapeneko bestelako gastuak» epigrafean kontabilizatutako gastu osotik, 530.671 euro Zaisa I industrialdeko jabeen erkidegoaren gastu orokorreari dagokie (segurtasun zerbitzuak, harrera lekua eta garbiketa, bai eta argindarraren hornidura ere, funtsean). Sozietateak partaidetza du eta administratzailetzat dihardu industrialde horretan. Kontratasteak bere gastuak ZAISARI ordainarazten dizkiote. «Ustiapeneko bestelako diru sarrerak» epigrafean 236.934 euro erregistratuta daude, gainerako jabeen gastu horiek ordainarazteagatik. Aldea, 293.737 euro, erkidego horretan partaidetza kuota duten lursailen eta ondasun higiezinaren titulartzat ZAISAK ordaindu beharreko gastua da.

A.8 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

Bi kontratuko lagin baten bitartez, aplikatzekoak diren legezko prozedurak aztertu ditugu. Bi kontratu horietan 780.860 euro esleitu dira, BEZa barne ez dela:

XEDEA	ESLEIPENA			Euroak, milakotan		
	PROZEDURA	DATA	ZENBAT.	EGIK.	AKATSAK	
					2017	A
1. Kamioi aparkalekuak kontrolatzea (3 urte + luzap. 1)	irekia	mar-16	(*) 627	192	A3,4	B1
2. Informatika zerbitzuen kanpo kontrat. luzatzea (5 urte).....	Zuzenekoa	ots-16	72	15	A1,2	
Luzapena (8 urte)	Zuzenekoa	ots-16	82	10	A1,2	
GUZTIRA			781	217		

(*) Unitate prezioez esleitutako kontratua. Esleipen zenbatekoa kontratuaren gehieneko prezioari dagokio ((Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 34. xedapen gehigarria).



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak milakotan	
AKATSAK	ESPED. ZK.	ESLEIPENA
ESPEDIENTEA		
A1. Zuzeneko esleipena: publizitate eta lehia printzipioak ez betetzea	1	154
A2. Aurreikusitako luzapenetako hutsak	1	154
A3. Galdatutako subrogazioa ez da sektore hitzarmenetik eratorria	1	627
A4. Prezioak berrikusteko klausula, KPlaren erreferentziarekin	1	627
ESLEIPENA		
B1. Esleipendunari dokumentazioa frogatzea galdatu ez izana	1	627

ALEGAZIOAK

KONKLUSIOEI ALEGAZIOAK.

II.1.- LEGALITATEA BETETZEA

LANGILEAK (begiratu A.6)

1.- 2016 urtean Mantentze lanen departamentura pertsona bat sartzeko jarraitu den hautaketa prozesuari dagokionez, atseginez ematen dugu ondorengo azalpena:

Hautaketa prozesuaren jatorria izan zen 2016ko martxoaren 14ko Administrazio Kontseiluak onartu zuela pertsona bat sartu behar zela Mantentze-lanen departamentuan eta barneko baliabideen bitartez hautagai egokia aukeratu behar zela.

Hautaketa prozesuaren helburua da Mantentze-laneko departamentura 2. Mailako Ofizial kategoria duen pertsona bat sartzea.

Hautaketa prozesua 2016ko apirilaren 22an publiko egin zen LANBIDE Enpleguaren Euskal Agentziak kudeatutako iragarki bat argitaratuz (dokumentazioa eransten da), non zehazten diren departamentuko lanak egiteko beharrezkoak diren gaitasunak eta kualifikazioa kalkulatzeko den.

Gehigarri gisa, eskaintza hori enplegu-bilaketarako 2 plataformetan argitaratu da (Infoempleo eta Infojobs).

Hautaketa prozesua zuzenean erakunde barneko zerbitzuek egin dute eta 3 pertsonako lantalde bat osatu da.

Argitaratutako iragarkiei emandako erantzunak (hautagai kopurua) honela jaso ziren:

- LANBIDE: 7
- Infoempleo: 204
- Infojobs: 52

Guztira: 263 hautagai. Denak gizonaek.

Hautagai guztiak, hautaketa-prozesuaren lehenengo fasean, eskaintzan eskatutako gaitasun eta esperientzia irizpideak kontuan hartuz aztertu dira.

Horrela beraz, aurrez 42 hautagai aukeratu ziren elkarrizketatuak izateko eta horietatik lehenengo elkarrizketara agertu ziren.

Elkarrizketen lehenengo erronda horren helburua zen hautagaien historialetan zeuden informazioak aztertu eta balioztatzea, eskaintako lanposturako beharrezkoak ziren baldintzak kontuan hartuz, horrela, hautagai egokia bilatzeko garaian azkenean multzo txikiago batean oinarrituta aurrez aukeraketa bat egitearren.

Egindako 37 elkarrizketatik lantaldeak 8 pertsona hautatu zituen ondoren berriz ere haiekin biltzeko.

Oraingoan elkarte kudeatzerakoan egoera potentzialak konpontzeko gaitasun teknikoak eta planteatutako arazoei emandako erantzunak aztertzea izan zen helburua; kudeaketa autonomorako gaitasuna eta jaso ditugun haien historialetatik ezagutzen genituen datu



orokorretik haragoko merezimenduak kontuan hartu dira, hautagai batzuk besteetatik nabarmentzeko balio zutenak.

Era berean, aurkeztutako lan alorreko historialak aztertu ziren aurreko lanetan eginiko funtzioei buruzko azalpen osoekin.

8 hautagairi eginiko aipatu elkarrizketa horietatik azkenean 2 hautagai aukeratu ziren hirugarren elkarrizketa baterako eta azken horretan taldean lan egiteko gaitasuna eta moldagarritasuna ezagutu nahi zen.

Eta azkenik, hautagaiei eskatu zitzaaien azal zezatela zein zen eskaintza honetara aurkezteko interesaren arrazoia eta hautatuak izatekotan iraunkortasun-konpromisoa zenbatekoa zen ere jakin nahi genuen.

Prozesuaren amaieran, hirugarren elkarrizketa hori egin ondoren, Ivan Lara Azpeitia hautagaia kontratatzea erabaki zen eta gaur gaurkoz erakundean jarraitzen du lanean.

Adierazi beharra daukagu, 2. mailako ofizial kategorian duen mantentze-laneko langile bat hautatzeko prozesu bat izanik, non 263 historial baloratu eta aztertuak izan diren eta hautagaiekin 59 elkarrizketa egin direlarik, bai formazioz eta bai teknikoki hobekien kualifikatutako hautagai bat bilatzea izan da helburua eta haietako inongoan ez da zuen txostenean aipatutako printzipioetako inor, merezimendu, berdintasun eta gaitasun printzipioetako inor kaltetu; hautagaiei ez zaie zalantzan jarri bidezkoa ez den inongo ezaugarri partikularrik, ez baziren lanpostuan egin beharreko lanak betetzeko eskatzen ziren gaitasunekin zuzenean zerikusia zuten haiek.

Era berean, dagokion bezala ziurtatzen dugu hautaketa prozesu honetan ez dela kanpoko inongo interferentziarik egon eta bermatzen dugu ezinezkoa izango zela hain prozesu luzea ongi eramatea ez baziren eduki aipatutako printzipioak oso argi eta bereziki lana betetzeko beharrezkoa den gaitasun teknikoaren printzipioa.

Azalpen hauekin batera ondorengo dokumentuak aurkezten ditugu:

- Lanbide eskaintza (1. eranskina)
- Finalisten laneko historiala. (2. eranskina)

Era berean adierazten dizuegu egindako elkarrizketen konklusioei buruzko akta formalik ez badugu ere elkarrizketak egiteko aurrez aukeratutako multzoko hautagaien historialak dauzkagula bertan egindako oharrekin eta bere garaian jada zuen eskura jarriak izan zirela.

KONTRATAZIOA:

2.- Elkartea konprometitzen da kontratu hau berrikusteko modurik egokiena bilatzera eta zerbitzu-kontratu bezala eraldatzera prozedurarik komenigarrienaren bitartez kontratatua izan dadin eta berori benetan gauzatu dadin kontrataziorako beharrezkoak diren epeak kontuan hartuta, HKEEri jakinarazita prozesu hori aurrera eramanez 2019ko irailean hasita.

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETARAKO PROZEDUREI BURUZKO KONTSIDERAZIOAK.

III.1.-

ZAISA I-eko jabeen komunitateko administrari jarduerari dagokionez, elkarrekin jabeekideei adierazi die administrari funtzioa utzi behar duela eta txostenak egiten duen gomendioa aintzat hartu, beraz, gaur gaurkoz komunitatea kanpoko administrari bat bilatzen ari da Jabeen Komunitate berri bat konfiguratzeko, bera izan dadin zerbitzuak eta hornidurak kontratatuko dituen bere kontabilitate propioarekin.

Une honetan ezin dugu abian jartzeko data bat baloratu baina HKEE erakundeari jakinaraziko diogu 2019ko ekitaldian zehar aldaketarako data efektiboa.

III.2.

Aztertutako Espedienteak:

- Subrogazioari buruz:

Aztertutako kontratuaren klausula administratiboen pleguari segurtasuneko zerbitzuen 3 enpresek erantzun zioten zerbitzuen filialen bitartez, eta haiek onartu egin zuten, eta lehiaketan interesatuta zeuden enpresetako inork ez zion subrogazioari inongo eragozpenik jarri.

Kontraturako ondorengo kategoria ezarri zen:

23. kategoria. Ikerketa eta Segurtasuneko zerbitzuak.

Ulertzen duguna da, zuzena izan ez balitz, kontratistek Plegua inpugnatu egingo zutelako edo, bere kasuan, aurkako jarrera agertuko zutelako eta ez zen horrelakorik gertatu.

Horrez gainera, zuen kontsideraziora jarri nahi dugu zerbitzu-kontratuak direla eta xedea, kokapena eta kontratugilea berak direla eta martxan dagoen ustiaketa baten jarraipena egingo dela, beraz, horrek egiten duena da subrogazioa egokia izatea kontratistarentzat, kontratua egiten duenarentzat.

Nolanahi ere, sarbideak kontrolatzeko egungo lehiaketarako irizpidea aldatu egin dugu, eskaintzak jasotzeko fasean aurkitzen da, eta subrogazioaren baldintza ezabatu egin da.

- Prezioen berrikusketari dagokionez:

Ulertzen duguna da kontratu hau egiteko xedea duen Plegua egin zenean, 2015ekoa baita, prezioak berrikustea posible zela legearen arabera.

Nolanahi ere, sarbideak kontrolatzeko egungo lehiaketarako irizpidea aldatu egin dugu, eskaintzak jasotzeko fasean aurkitzen da, subrogazioaren berrikustea ezabatuz.

- Gizarte Segurantzaren egunean dagoela dioen dokumentua.

Baldintza hori egiaztatua izan zen, abal bat eta aseguru-poliza bat edukitzearekin batera.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Outsourcing kontratua.
Lehenago esandakoa errepikatzen dugu.



ABREVIATURAS

CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
GOVA	Gobierno Vasco.
IPC	Índice de precios de consumo.
IVA	Impuesto sobre el Valor Añadido.
LFPV	Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
LPGE 3/2017	Ley 3/2017, de 27 de junio, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2017.
NIF	Número de Identificación Fiscal.
TREBEP	Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.
TRLCSP	Real Decreto Ley 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de las cuentas anuales de la Sociedad Promotora de la Zona Aduanera de Irun, SA (en adelante, ZAISA) para el ejercicio 2017.

Las cuentas anuales del ejercicio 2017 han sido aprobadas por la Junta General de Accionistas el 7 de junio de 2018.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: Revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en materia de personal y de contratación de obras, servicios y suministros. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias por tener incidencia en el fiscalizado.
- Contabilidad: Sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación. Nuestro trabajo ha consistido en revisar el informe de auditoría llevado a cabo por una firma externa, realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.
